


**San Inazioz farre**

ARGIAREN Zuzendari jauna agur:

Otsailaren hiruko ARGIA-z zera esan gura nizuke: Nik bezain ongi edo hobeki dakizun bezala, San Inazioz farre eta burla egiten irudidun horrialde bat atera duzuela.

Errespetuaren eta gizalegearen jokabide prestuak hankapean hartuz, lotsagarrizko karikatura bat egiten duzuela gure patroi handiaz, letrez eta dibujoz baliaturik.

Beraz, zuen jokabide makurra gaitzesten dudala esan gura dizut. Ez da zilegi zuen irakurleen sentimenduak horrela ofenditzea. Xabierreko saindu handi eta euskaldun bikainari —bere sendi guztiak nafar askatasunaren alde azken orduraino borrokatu zuelarik— *«Praxku Xabierrekoa»* deitzea burla zikin bat besterik ez da. Espero dut, mindu dituzuen irakurle guztiei barkamena eskatuko diezuela publikoki.

**Jon Etxaide**

**Irakurle mindua**

JON Etxaideren haserrearekin bat nator, otsailaren 3ko Argian San Inaziori buruz argitaratu duzuen komikia dela eta. Komiki horrekin katoliko izateari irain egiten zaiola derizkiot, eta marrazkiz apaindua egoteak ez duela hor esaten dena zilegiztatzen. Erabili den bitartekoa hitza bera baino sarkorragoa izanik, iraina handiagotu besterik ez du egiten.

Mindu dituzuen irakurle guztiei publikoki barkamena eskatuko diezula espero dut nik ere.

**ebastian Uria**
**egazpia)**